



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Olatz Prat, Joxan Goikoetxea, Iosune Marín eta Txema Garcés-ek abesti bihurtuko dituzte Shakespeareren sonetoak *Oro aski ez* errezitaldian

- Musikak eta literaturak bat egingo dute Arriaga Antzokiaren foyerrean datorren astelehenean, hilaren 17an (18:30ean) egingo den emanaldi ederrean.

Bilbo, 2022ko urtarrilaren 14a. – Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak antolatutako “Literatura eta Musika Euskaraz” zikloak beste errezitaldi bat eskainiko du Arriagako foyerrean datorren astelehenean, urtarrilaren 17an, 19:30etik aurrera. Oso kontzertu berezia da, ***Oro aski ez*** izenekoak, Juan Garzia Garmendia idazleak euskaratutako Shakespeareren sonetoen aukeraketa biltzen duena.

Joxan Goikoetxeak zuzendutako errezitaldi literario musikala da eta pianista eta soinu-jole gisa ere parte hartzen du. Errezitaldiarekin, ikuskizun gisa gauzatzen da 2014an Shakespeareren sonetoak euskaratu eta musikatzeko bultzatutako ‘Zeru Horren infernuak – Shakespeareren sonetoak’ proiektua. Proiektu hark Goikoetxea eta **Olatz Prat** abeslari azpeitiarra elkartu zituen, eta lan haren ondoren sortu zen orain Arriaga Antzokira iritsiko den *Oro aski ez* kontzertua. Goikoetxea eta Prat aurretik ere elkarlanean ibilitakoak ziren Goikoetxeak berak zuzendutako ‘SDB – Sortuko Dira Besteak’ ekimenean.

Izan ere, ibilbide luzeko bi artistaz ari gara. Goikoetxeak ezin konta ahala proiektutan parte hartu du, barne hartuz, besteak beste, Kepa Junkera, Dulce Pontes, Xabier Lete, Luis Eduardo Aute eta beste hainbatekin egindako elkarlanak. Olatz Prat, berriz, Zuri & Beltz jazz bandarekin hasi zen, geroago Euskadi Gazteako Maketa Lehiaketa irabazi zuen Karelean rock taldearekin, Lantz taldean ere aritu zen, folk garaikidearen mundura hurbilduz, eta hainbat proiektutan aritu da elkarlanean.

Joxan Goikoetxea eta Olatz Pratekin batera, ibilbide handia duten beste bi musikaririk osatzen dute emanaldiaz arduratuko den laukotea: **Iosune Marín** abeslari eta gitarristak, eta **Txema Garcés** baxu-jotzaileak.

Errezitaldia Arriaga Antzokiko foyerraren epeletan eskainiko da, ikusleek izugarri gozatzen baitituzte hau bezalako proposamen lasai eta intimistak espazio horretan, artistekiko eskaintzen duen hurbiltasunaren onura lortzen baitute.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)

- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus